



**ITSASONDOKO
UDALA**

HERRI-BIDEEN INBENTARIOA

Gizarte baten bizimodua eta erabilerak aldatu edo galtzen direnean, azpiegiturak ere desagertzen joaten dira, erremediorik gabe ahazten. Hala ere, Itsasondoko bideak ezagutzen dituzten azken pertsonak badira oraindik. Ez luzerako, ordea: gutxi dira dagoeneko gurdibideak zer ziren eta nondik zihoazen dakitenak. Nork daki garai bateko bitxurrek nora joanak diren eta andabideak edo elizbideak genituen ere?

Mendeetan zehar eraikiak izan ziren elizbideak; udalerrian barreiatutako bizilekuak herrigunearekin lotzen zituzten, baserriak bere soro eta mendiko sailekin, eta denak azkeneko txokoa izango zuten kanposantuarekin.

Eta erabat galdu aurretik, udalak testigantza jaso nahi izan du, besteak beste, bere betebeharra ere badelako, gure aurrekoek zabaldu eta mendeetan zehar auzolanean zaindu izan dituzten bideak denenak baitira; gordetzeko moduko herri ondarea.

Lan honen ondorioa buletinean argitaratu zen: Herri bide publikoen inbentarioa:

<https://www.itsasondo.eus/node/2386>



**ITSASONDOKO
UDALA**

